LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

UDALAREN APARTEKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK
alkate-udal burua
IÑAKI AZPIROZ BELDARRAIN
zinegotziak
JONE ZUBELDIA ALTUNA
ENEKO ARTEAGA USANDIZAGA
ITZIAR SAENZ DE OJER MARTINEZ

IDAZKARIA
ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2022ko martxoaren 15ean, arratsaldeko 19:30etan, eta Udaleko alkate udalburua, Iñaki Azpiroz Beldarrain izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

GAIAK

LEHENA. LIZARTZAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA IDAZTEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKI ARRUNTAREN BIDERA KONTRATATZEKO ESPEDIENTE ONARTZEA ETA ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN ETA TEKNIKOEN AGIRIAK ONARTZEA

Kontuan hartuz, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 28. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, Alkatetza honek beharrezkotzat jotzen duela zerbitzuen administrazio-kontratu bat izapidetzea udalerri honetako Lizartzako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra Idaztearen jarduerak gauzatzeko.

Udalaren Zerbitzu Teknikoen txostena ikusi da. Bertan, haren alderdi teknikoak eta jarduketa horren bideragarritasuna zehazten dira, eta lizitazioa arautuko duten Preskripzio Teknikoen Pleguak prestatzen dira.

Kontuan harturik Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 308. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoa.

Ikusirik kreditu atxikipena 1.0000.642.150.00.01.2022 aurrekontu aplikazioaren kargura, 205.700,00 eurokoa, tramitatu beharreko zerbitzu kontratuaren balio zenbatetsia dena.

Ikusirik Udal honetako Idazkaritzak emandako txosten juridikoa.

Ikusirik kontratu hori arautuko duten administrazio klausula partikularren orriak onartu direla.

Ikusirik Udal honetako Kontu-hartzailetzak egindako fiskalizazioa.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren arabera, Alkatetza da kontratazio-organo eskuduna.

Esandakoaren arabera, indarrean dagoen legeriak emandako eskumenak erabiliz eta, zehazki, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera,

ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Lizartzako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra Idaztea zerbitzuak kontratatzeko espedientea onartzea, 170.000,00 eurokoa, kontratuaren balio zenbatetsiari dagokiona. Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagozkion 35.700,00 euro jasanarazi behar zaizkio, eta 205.700,00 euro, eta 40 hilabeteko iraupena izango duena, prozedura irekiaren modalitatean.

BIGARRENA.- 205.700,00 euroko gastua onartzea, indarrean dagoen 2022ko Udalaren 2022, 2023, 2024, 2025 ekitaldirako gastuen aurrekontuko aplikazioaren kontura.

HIRUGARRENA.- Zerbitzu-kontratu hau prozedura irekiaren bidez kontratatzeko Administrazio Klausula Berezien eta Baldintza Tekniko Partikularren Orriak onartzea.

LAUGARRENA.- Kontratu hau prozedura irekiaren bidez esleitzeko prozedurari hasiera ematea eta dagokion iragarkia Udal honen kontratugilearen profilean argitaratzeko agindua ematea, hamabost eguneko epean egoki iritzitako proposamenak aurkez daitezen.

BIGARRENA.- <u>GASTUAREN URTEANITZEKO IZAERA ONARTZEA</u>

LIZARTZAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA IDAZTEKO ZERBIZUA zerbitzuaren urteanitzeko izaera onartzeari buruz, Ogasuneko Informazio Batzordeak proposatutakoaz, Ogauneko Informazio Batzordeak iritzitakoa aztertu da, bai eta gastua, 2022ko eta ondorengo ekitaldietako Aurrekontuan sartzea ere.

Halaber, Idazkari-Kontu Hartzaile lanpostuetan diharduten funtzionarioek egindako erregelamenduzko txostenak aztertu ditugu.

Gastu baten urteanitzeko izaera onartzea Udalbatzarrari dagokio.

Aurrekontuan egokitu beharreko kreditua jasotzeko eta konpromiso kredituen eraskinaren diligentzia egiteko, gastu baten urteanitzeko izaeraren onarpena, hain zuzen, gastu hori kudeatu behar den ekitaldiko aurrekontua egin aurretik erabaki behar da, guztia ere, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Araudiak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 6.1.e) artikuluan dioenaren arabera.

Udalbatzarrak gaia behar adina aztertu eta bozketan, lau zinegotzien aldeko botoen emaitza izan ondoren, hau

ERABAKI DA:

1.- LIZARTZAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA IDAZTEKO ZERBIZUAren urteanitzeko izaera onartzea, gastua ekonomi ekitaldi batera baino gehiago hedatzen delako eta atalkako egitasmotan banatu ezin daitekeelako.

2.- Hasierako izaeraz finkatzen dira aipatutako urteanitzeko gastu egitearen ondorengo egutegia eta ondorengo zenbatekoak:

2022 urtean 46.282,50 € - Aurrekontu partida: 1.0000.642.150.00.01.2022
2023 urtean 46.282,50 € - Aurrekontu partida: 1.0000.642.150.00.01.2023
2024 urtean 46.282,50 € - Aurrekontu partida: 1.0000.642.150.00.01.2024
2025 urtean 46.282,50 € - Aurrekontu partida: 1.0000.642.150.00.01.2025

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko 20:00etan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK
Izpta: Iñaki Azpiroz Beldarrain

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia